

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Hustua

ARTOCARPUS ALTILIS, ogiondo edo ogi-arbolen fruitua, orrantzatutako ogigai ore a bailitzan, erre eta jaten da. Baita birrindu eta galletak eginda ere. Fruituarenak ez dira, berriz, arbolon etekin bakarrak. Gure antipodako polinesiarrek ez zuten alferrik etxekotu... Haren enborreko latex oparoarekin kola itsasgarriak, txoritarako biska, txikleia eta iragazkiak behintzat egiten dira eta beherakoa lehortzeko ere badarabilte. Egurraren zuntzarekin sokak eta lokarriak, arrantza-sareak etab. egiten dituzte, baina gerrian zintzilik daramatzaten tapa edo gona airoso tradizionalak egiteko gaia dutelako ezagunago da. Egurra bera erregai aproposa da, etxeko zurajerako eta zuraje arteko altzaritarako bezala.

Hainbeste mesede zekartzan arbola etxekotuko ez zuten bada? Asia hegoaldeetik abiatu eta pixkanaka Ozeano Bareko uharteak kolonizatu ahala ogiondoa landatzen zuten. Kolonizazioan ezinbestekoa zen arbola hau, jatena, osasuna, jantzia eta lanabesak batean zeramatzana baitzen. Tartean kolonizaziorako lanabes nagusia, kanoa. Ogiondoaren enborra baitzen kanoak egiteko gaia. Euskal Herrian haritzarekin egiten zen bezala, aizkoraz eta opatxurrez hustutako enborrak ziren gure lehenengoetako ontziak, kanoa monoxiloak, alegia.

Garrazta, tantaia behar izan haritzak honelako ontzi bat emateko... Gerora Europako ontzi handienetakoak eraikitzeke arotz aurreratuenen teknikak izango zirenaren abiapuntua, enbor bat hustea. Baionako Euskal Museon dugu jasoa ezagutzen den tankera honetako ontzi bakarra. Kaikua egite-



JAKOBA ERREKONDO

Kanoa monoxiloa Baionako Euskal Museon.

ko urkia husten den era berean edo garai batean ogia egiteko oremahaiak bezala, enbor bat hustuz eraikitzen ziren ontzi hauek. Geurean bezala baita itsaso bareagoetan ere... hustzailea kaikua izan edo ez. Polinesiarrek ogiondoa daramaten eran, non ez dugu guk harro-harro haritza erakusten?

JAKOBA ERREKONDO



Neguko belarra

Garai batean, berdantzart bertantsu, negu luzean etxeko abereak elikatzeke, uda partean ugariak ziren bazkak ondu beste aukerarik ez zen. Ondu hauekin metak edo zuhartzak egin edo mandio, ganbara, borda, eilor eta abar betetzen ziren. Gero, ondu beharrik gabe belarra berdetan belar-zulotan silortzeko ohitura zabaldu zen. Zulo itxi hauetan belarrak irakin egiten zuen, hartzitu. Oraingo joera, zuloak bete beharrean gero hara eta hona mugitzeko errazagoak izango diren bolak egiten dira. Belar moztu berria plastikoko itxi-itxian bildu eta belardian bertan utzi edo ukuilura hurbiltzen da. Gure paisaiaren historiako meta berriak. Meta beltzak, zuriak, berdeak...